

# Memeak euskaraz sortu nahi?

Erabiltzen al dituzu memeak? Zeuk sortutakoak ala, jada, existitzen direnak? Testu honetan zuk zeuk euskaraz memeak sortu ahal izateko aplikazio bat aurkezten da.

Testua irakurri eta erantzun egokiak aukeratu.

## berria

### Memeak euskaraz

lameza komunikazio eta teknologia enpresak 'Memeka.eus' proiektua sortu du. Memeak egin eta zabaltzeko plataforma bat da, nerabeek euskara «modu ludikoan» erabil dezaten.

Mezu bat da memea izenez, eta komunikatzeko modu bat ere bai izatez. BERRIaren Estilo Liburuan dator definizioa: «Interneteko informazio elementua, sare sozialen bitartez zabaldu ohi dena, eta irudi, esaldi edo bideoen bat erakusten duena». Memeak badute umorea, badute ironia, badute satira..., eta horien erabiltzaileek badute hori guztia euskaraz sortu, aurkitu eta hedatzeko aukera ere, orain: Memeka.eus izeneko proiektua sortu du lameza komunikazio eta teknologia enpresak.

«Kezka» batetik abiatutako proiektua da Memeka.eus, lamezako kudeatzaile Eli Pombok azaldu duenez: «Nola sustatu euskara gazteen artean. Ikusten genuen memeak badirela baliabide bat gazteentzat, erabiltzen duten tresna bat dela, gogoko dutela. Umorea, satira, ironia... lantzen dituzte bitarteko grafiko bidez, eta, nahi gabe ere, hizkuntza joko horretan sartzen da».

Sortu zenetik garatu izan ditu lamezak euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin (IKT) erlazionatutako hainbat proiektu eta produktu. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren laguntza bati esker jarri dute martxan.

Pombok gogora ekarri ditu aurretik euskarazko memeen inguruan egindako lanketak. Bagera euskaltzaileen elkarteak antolatutako lehiaketa hura (2015): Ez izan memelo eta izan memelari. «Ikusi genuen bazeudela erabiltzaileak sare sozialetan-eta arrakasta handia zutenak meme horiekin, eta euskarak bazuera hor bere lekua», azaldu du Pombok. Baina plataforma bat edo tresna bat eskura jartzea falta zen: «Beste hizkuntzetan bazeuden memeak sortzeko plataformak. Zergatik ez gurera halakoren bat ekarri? Horixe izan da proiektu honen ideia».

### Funtzionatzeko modua

Erabiltzaileak irudi garbiak ditu eskura webgunean memeak egin ahal izateko, eta berak nahi duen testua txertatu dezake bertan. Letra tipoaren kolorea eta mota pertsonalizatu ditzake, eta eskura ditu irudiaren gainean erabiltzeko eranskailu (sticker) ezagunak ere. Egileak bere memea argitaratzen badu, Memeka webguneko katalogo orokorrean kontsultatu eta erabili ahal izango dute gainerako erabiltzaileek. «Saiatu gara irudi eta oinarri horietako batzuk gurera ekartzen, euskal izaera izan dezaten. Oinarri gisa Meme Generator izeneko plataforma hartu dugu, eta haren funtzioak eta tresnak gurera ekartzen saiatu gara», argitu du lamezako kudeatzaileak.

Aurtengo otsailean sortutakoak dira galerian dauden lehen memeak, eta atzokoa azkena. Webgunean sartu eta saltsatu besterik ez dago erabiltzaileen sormenez ohartzeko. «Konturatu gara badagoela jendea memeak egitera ohituta dagoena, eta eskertu duena horrelako tresna bat eskura jartzea», azaldu du Pombok.

Eta gazteen jarduna nabarmendu du: «Euskararen inguruko diskurtso batzuekin gazteengana gerturatzea ez da erraza. Behar dituzu baliatu haientzat atseginak izango diren eta, batez ere, aisialdiarekin zerikusia izango duten mekanismoak. Eta haiekin erakarri».

Alde horretatik, memeak gazteentzat «sormenerako eta komunikaziorako adierazpideak» direla dio Pombok. «Eta sare sozialen eta mezularitza programen bidez partekatzen dituzte, euren sentimenduak adierazteko, egoera bat azaltzeko edo, besterik gabe, lagunekin dibertitzeko. Horregatik da horren garrantzitsua tresna erraz baten bidez euskarazko edukiak ere horrelako testuinguruetan mugitu eta zabaltzea».



Memeka.eus web orrian eginda dauden memeetako batzuk. © BERRIA

Testua irakurri eta erantzun egokiak aukeratu.

**1. Nork sortu zuen memeka.eus proiektua?**

- a) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzak sortu zuen proiektua.
- b) Bagera Elkarteak sortu zuen lametza enpresaren laguntzaz.
- c) lametza enpresak sortu zuen, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzak lagunduta.

**2. Zergatik sortu zuten proiektu hori?**

- a) Kezka bat zutelako gazteen artean euskara nola sustatu.
- b) Gazteek ez dutelako umorea, satira, ironia... lantzeko interesik.
- c) Gazteek ez dutelako memeak sortzeko baliabiderik.

**3. Lehenengo egin izan den euskarazko memeen inguruko lanketaren bat aipatzen da testuan. Zein?**

- a) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzak antolatu zuen lehiaketa bat.
- b) Bagera euskaltzaleen elkarteak 2015ean antolatu zuen lehiaketa bat.
- c) Erabiltzaileek sare sozialetan antolatu zuten lehiaketa bat.

**4. Nola funtzionatzen du Memeka webguneak?**

- a) Webgunean irudiak eta testuak daude; erabiltzaileak bietatik aukeratu eta lotu beharko ditu.
- b) Irudien gainean, erabiltzaileak nahi duen testua txertatu dezake estiloa pertsonalizatuta.
- c) Memeak osorik datoz euskaraz, eta erabiltzaileek eskura dituzte aukeratzeko eta erabiltzeko.

**5. Sortzen diren memeek ze hedapen izango dute?**

- a) Memea soilik erabiltzaileak hartzaileari bidaltzeko aukera egongo da.
- b) Egileak memea webgunean argitaratzen badu, erabiltzaileek meme hori erabili ahal izango dute.
- c) Sortzen den meme oro, sortzen den unetik erabiltzaile ororentzat erabilgarri egongo da.

**6. Memeka.eus-eko sortzaileen arabera, webgunean sartu eta konturatzen zara...**

- a) Erabiltzaileek ez dutela sormen askorik.
- b) Badagoela jendea memeak egitera ohituta dagoena, eta tresna eskertzen duena.
- c) Jendea ez dagoela ohituta memeak egitera, baina eskertu duela horrelako tresna bat.

**7. Gazteak eta memeei buruz, honela mintzo da Pombo:**

- a) Euskararen inguruko diskurtsoekin gazteengana hurbiltzea, oro har, erraza da.
- b) Gazteek sareetan baino aurrez aurreko harremanetan gehiago erabiltzen dute euskara.
- c) Euskararen inguruan gazteengana gerturatzeko, asialdiari lotutako mekanismoak behar dira.



Irudia: memeka

ERANTZUNAK

